
Egun on gaur gure artean zareten guztioi. Kirol-mota ezberdinetan izan dituzten lorpenengatik nabarmendutako lasarteoriarrei aitormen bat egiteko elkartu gara. Lorpen horietaz bereziki harro sentitzen gara, erakusten baitute gure jendea zenbat lan egiteko gai den, bere ahaleginarekin eta dedikazioarekin, betiere helmuga berriak gainditzen saiatuz.

Lehenbiziko aldia da Udaletik aitormen kolektibo hau egiten duguna, baina zuen lanari esker baita posible da egitea, eta horrek pozez eta harrotasunez betetzen gaitu. Lehenbiziko aldia da, baina azkena ez izatea nahi dugu. Merezi duzelako, baina baita ere aurrerantzean ospakizun honek zentzua izaten jarraituko duela espero dugulako.

Kirolean aritzea gogorra da, gogotik lan egin behar baita helmugetara iristeko, jarritako mugariak gainditzeko, norberarenak bezala taldearenak ere. Eskerrik asko gaur hemen zareten guztioi, zeren, benetan, ondo merezia baituzue. Geure buruari begiratzeko ispilu bat zaretelako, bereziki gazteenentzat, zuengan erreparatzen baitute zuen ereduari jarraitzeko eta berak izateko egunen batean hemen egongo direnak. Hala izatea nahi dugu, sutsuki.

Amaitzeko, zilegi bekit atrebentzia hau:

*"No me miréis con esos ojos,
¿Me permitís que ponga,
Junto al metal del héroe
Y la palma del mártir,
Me permitís que ponga
estos nombres sin pólvora y sin sangre?"*

Nicolás Guillén kubatar poeta bikainaren hitzak, nire mintzaldia amaitzeko. Hitz horiekin, nik ere omenaldi bat egin nahi diet, arrakastaren koroak erdietsi ez badituzte ere, egunero kirolaren praktikan ahalegintzen diren kirolari guztiei. Jarraitzera animatzen zaituztet, zeren kirolean ez baitugu arrakasta hori bakarrik bilatu behar: kirolak, osasun eta aisiaz gain, laguntasunezko eta elkartasunezko balioak ere ekartzen dizkigu. Gure gaurko gizartean hain beharrezkoak zaizkigun balioak.